

Kanadako elebitasunaren bi zutabe ahulak: gazteak eta etorkinak

KANADAN elebitasunaren (frantsesa-ingeles) bilakaeraren ikerketa aurkeztu berri dute. 1961-2011 urte arteko ikuspegia eman dute, eta erakunde publikoak kezkatuta daude. Québec probintzia elebitasunaren irla bihurtzen ari da. Frantsesez eta ingelesez hitz egiteko gai diren hiztun kanadarren %57 Québecen bizi dira. Beste era batera esanda, Québecen biztanleen %42 elebiduna da. Bistan denez, halako proportziorik duen beste probintziarik ez da. Elebidun gehien duen bigarren probintzia Ontario da. Kanadako elebidunen %23 bizi dira Ontarion. Frantsesa eta ingelesa hitz egiten



“Québec elebiduna, Québec hobea da”, dio neskak heldutako afixak ingelesez eta frantsesez.

duten biztanleen %86 hiru probintzian pilatzen dira. Québecetik kanpora, batez bestekoa aterata, %9,7 baino ez da elebiduna.

Erakunde publikoek begia bi kon-

tutan dute jarria: gazteak eta etorkinak. Eskoletan frantsesez ikasteak indarra hartu du azken urteotan, baina elkarriketa arrunt bat frantsesez egiteko gai diren gazteen ehunekoak behera egin du. 1996an, 15 eta 19 urte artekoen %15 zen horretarako gai, eta gaur egun %11.

Etorkin askok ikasten du frantsesa, baina bertakoen proportziora ez dira ailegatzen. 250.000 biztanle iristen dira urtero Kanadara. Etor-kinen %6 da elebiduna.

Aldiz, Québecetik kanpora bizi diren bertakoen %11k daki frantsesez eta ingelesez. 30 urte barru herrialdeko biztanleria hazkunderen %90 etorkinen esku egongo da.

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Pentsio publikoak defendatu, duinak eta eguneratuak

PENTSIOEN ERREFORMAZ “adituen batzordeak” Espainiako Gobernuari egingo dion proposamenaren inguruan hainbat datu argitaratu dira egunotan. Badi-rudi gaur egungo eta etorkizuneko pentsionistei eragingo diela. Hitz gutxitan esanda, pentsioek erosteko ahalmena gal dezatela proposatuko dute. Hala, pentsioak ez lirateke inflazioaren arabera eguneratuko, gutxienez KPIa adina igotzeko automatismoa desgertuko bailitzateke. Horren beharrean, “adituek” proposatzen dute eguneraketa automatikoa Gizarte Segurantzaren finantza egoeraren menpe egotea: hau da, pentsioak Gizarte Segurantzak izaten dituen diru-sarrerara eta gastuei egokitzea. Irizpide hori gaur ezarri-gero, pentsioak asko murriztuko lirateke. Etorkizuneko pentsionistek jasoko luketen zenbatekoa berriz, bizi itxaropenarekin kalkulatu litzateke.

Bistan da pentsioetan dagoen gastu publikoa murriztu nahi dela. Erreforma berri hau inposatu nahi dutenak bankuak dira –BBVA eta Santander batez ere–, euren aseguru-etxeen bidez. Ez da kasualitatea Mapfre, Aviva eta BBVA gisako aseguru etxee-

tako ordezkariak osatzea “adituen batzordea” delakoa. Eurek jadanik bermatuta dituzte pentsio pribatuentzako plan gozoak.

Erasoaldi kapitalista berri honen aurrean, pentsio publikoak defendatu behar dira. Sistemaren “iraunkortasuna”, hazkundera eta enplegua sortuko duten politika ekonomiko egokien bidez lortuko da: paradisu fiskalak eta iruzurra desagerraraziko dituen zerga erreforma erradikala eginda; gastu militarra deuseztatuta –Espainiako Defentsaren urteko aurrekontua 7.000 milioi eurokoa da eta 2025 arte 31.000 milioi euroko zorra du–; eta obra faraonikoentzako gastu publikoa ezabatuta. Hego Euskal Herrian, Gasteiz eta Iruñeko gobernuek gaur hemen kotizatzen dugunoi pentsio publikoak bermatu behar lizkigukete, pentsio duinak eta eguneratuak. Berriz ere nazio subiranotasunik ez izateak kaltetzen gaitu.



Juan Mari Arregi